

4. Toponimia aurreindoeuroparraren datu batzuk: ama, zegi, obi...

Mikel Urkola Eleizegi



4.1. Nor

a) Ikasketak / Studies / Estudios

- Filosofian Lizentziaduna, Complutense Unibertsitatea. 1970
- Psikologian Lizentziaduna, Complutense Unibertsitatea. 1974
- Psikologia Sozialean Doktoradutza, 1983.

b) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

- Sekularrak apaiztu, 1968.
- Hacia el triunfo de la nación vasca, Edit. Luis Haranburu, San Sebastián, 1984.
- Problemas de actitudes psicosociales en Guipuzcoa. - De la sustitución nacional a la normalización nacional. Universidad Complutense, 1985.
- Nazional subjektibitatea-Subjetividad en lo nacional, UPV-EHU, Cursos de Verano, 1985.
- Legitimación-deslegitimación del poder en Euskadi, Cursos de Verano en San Sebastián, 1987.
- Dificultades para un análisis objetivo-subjetivo sobre la nación vasca. In A. Pérez Agote, Sociología del nacionalismo, II Congreso Mundial Vasco, UPV., 1989.
- Soziologia Kritikoatik Hezkuntza orokorrera, 2. edizioa, Lasarte Oria, 2004.
- Soziologia eta historia batzen, Gaiak, Donostia, 2007.
- Helduen hezkuntzaren tragedia, Erroteta, Bilbao, 2009.
- Algunos datos de toponimia preindoeuropea, ARSE, nº 44, ps. 17-66, 2010.
- Mitología preindoeuropea en toponimia, ARSE, 2014, en impresion,

c) Experience / Eskarmentua / Experiencia

- Unibertsitate irakaslea
- Eskola Unibertsitariotan Katedraduna, 1988.

d) Harremanetarako / Contac / Contacto

- urkobus[abildua]hotmail.com

4.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

a) Laburpena. Toponimia aurreindoeuroparraren datu batzuk: ama, zegi, obi...

Lehenengo, Toponimia diziplina anitz arteko zientzia dela. Hasierako izenburuan mahairatu dudan galderari, (euskeraz aurreindoeuropar mitologiaren aztarnarik ba ote dagoen toponimian, alegia) ezin zaio erantzunik eman euskal eta aurreindoeuropar mitologia horren berri batere ezagutu gabe. Beste inori irakurtzen irakasteko, aurrena nork berak irakurtzen ikasia izan beharko duen bezala.

Hemen, konkretuki, aztergai ditudan AMA bukaeradun hitz hauetan, euren analisirako, ezinbestekotzat jotzen dut euskal mitologiaren aztarnak ezagutzea. Beharrezkoa da AMA bukaeradun toponimo hauek asmatu zituztenen mentalitatea edo burubidea ezagutzea. Horretarako, milaka urtetako bidai luzea egin beharra baitago, antropologoei laguntza eskatuko diegu, gidari lana egin diezaguten.

Bigarrenik, indoeuropar erak eta indoeuroparreko mitologiak diferenteak direla azpimarratu beharra dago. Hori gertaera enpirikoa baita, egia den ala ez, enpirikoki egiaztatu behar da. Eta egiaztatze lan hori antropologoei dagokie, ez hizkuntzalariei. *Lurmenek*, arkeologia enpresak, Iruña-Veleiako indusketa arkeologikoa, metodo arkeologikoak ondo jarraitu zituen ala ez aztertzea, arkeologoei dagokie eta ez hizkuntzalariei.

b) Abstrac. Pre-Indoeuropean toponymy, same stray data: ama, zegi, obi

First, the Toponimia is a discipline that relates to many sciences.

The question that involves the original title (whether or not there are traces of the pre-Indo mythology in place names), can not be answered without knowing the details of the Basque and pre-Indo mythologies. In the same way that anyone wanting to teach writing to another, he must know how to write.

Here in particular we does work on place names ending in AMA. For their analysis it is essential rummaging through Basque mythology. In search of what they had in mind that these names be baptized to make a trip of thousands of years and have to ask for support.

Secondly, there is need to clarify whether pre-Indo and Indo-European mythologies are different. This empirical fact there must be contrasted empirically. And that does not correspond to confirm to linguists but to antropólogos. It is the same case as to whether the archaeological excavation of Iruña Veleia was done or not well, that's a case that corresponds to the archaeologists.

c) Resumen. Algunos datos de toponimia preindoeuropea: ama, zegi, obi...

Primero, que la Toponimia es una ciencia interdisciplinar. A la cuestión que he presentado en el primer título (es decir, si en hay en euskera algún rastro de mitología indoeuropea), no se le puede dar respuesta sin tener ningún conocimiento sobre mitología vasca e preindoeuropea. Tal y como para enseñar a leer a otros, primero tiene que ser uno quien aprenda a leer. Aquí, concretamente, en este grupo de palabras que terminan en AMA, voz que estoy examinando, para su análisis, doy por imprescindible el conocimiento de las huellas de la mitología vasca.

Es ineludible conocer la mentalidad de quienes crearon estos topónimos acabados en AMA. Para ello hay que realizar un larguísimo viaje a través de miles de años, pidiendo ayuda a antropólogos, que nos harán de guía.

Por otra, hay que recalcar que los indoeuropeos (lenguas) y la mitologías indoeuropeas son diferentes. Ya que es un hecho empírico, hay que constatar empíricamente si eso es cierto o no. Y ese trabajo de verificación, les corresponde a los antropólogos y no a los filólogos. Investigar si Lurmen, empresa arqueológica, realizó la excavación arqueológica de Iruña-Veleia utilizando los métodos arqueológicos correctamente, les corresponde a los propios arqueólogos y no a los filólogos.

4.3. Txostena / Communication / Ponencia

Aurre oharra

Artikulu osoa ARSEn azalduko da, 2015eko maiatzan. Gaurko saio hau haren laburpena izango da.

Bigarrenik: Autoreen aipamenak, jatorrizko hizkuntzetan egingo ditut, ARSEko artikuluan egin dudan bezala, ni ez bainaiz itzultzailea.

Lan honetan hiru gai jorratzen ditut: Lehenengo, garrantzitsuena, AMA bukaeradun toponimoena. Bigarren, ZEGI (*behia*) oinarri duten toponimoak eta, hirugarren, zeltiberoen lurraldean azaltzen diren, ustez, euskal toponimo batzuk.

a) Ama (MA, AMA, AMMA, ANA, NA) erroaren jatorriaz

a.1. Hitzaurrea

Azkenaldian, Zestoa inguruan, Paleolito garaiko aurkikuntza berriak egin diren marko historiko honetan, hara non indoeuroparurreko mitologiaren aztarnak ere toponimian ba ote dauden galdetzea izango da nere hitzaldi gaia. Galdetzea bakarrik ez, nere apaltasunetik, erantzun xumea ematen ere saiatu egingo naiz.

Hara hemen, Gimbutas arkeologoa eta antropologoak, hain zuzen Europa Zaharraren ikerle ospetsua izan zenak, indoeuroparurreko mitologiari buruz esanak (1996) 111 or. :

Historiaurretik ezker azaltzen den Bizi Emaile Jainkosa mendien Anderea zen, baita urena, basoena eta abereen Anderea ere. Naturako indar misteriotsuen gizagorpuztun itxurapean. Gainera, putzuen, iturramen eta ursendagarrien babeslea baitzen, osasun emaile sagaratua zen... Bestalde, animalien eta natura osoaren Anderea zenez, mendi gainetan lau aizetara gurtzen zuten.

Gimbutas, beraz, subjektu misteriotsu bati buruz mintzo zaigu: Bizi Emaile edo Ama, Jainkosa eta Anderea den subjektuaz. Gainera, aurreindoeuropar pertsonaia honi lau objektu konkretu egozten dizkio: Mendiak, Urak, Basoak eta Abereak; horiez gain, natura osoa ere bai.

Interesgarria da, baita, Ortiz-Osesen (2005an, 11 or.) esaldi motz hau:

"Agian euskal mitologiaren positiboena zera izan daiteke... Jainko Ama bat plazaratzen digula, Mari izenez, LURRAMAREN pertsona itxurapean".

Hitzaldiaren laburbilduma ematen ari garen hasiera honetan, interesgarria da, baita, Mz. Lizarduikoak (2007), 153-154 or., esana:

“Euskal eremuan aztertu dugun mitologia sortzaile eta panteista Antzinaroan mundu osoko leku askotan egon zen zabaldua, eta denetan MA fonema ageri da osagai giltzarri modura, Juan Thalamas Labandibarrek lan eder batean azaldu zigun hori... sumatzen zuten Paleolitotik zetoze gero Neolitoan MA, AMA, AMMA, ANA, NA eta beste horrelako erroak izan zirenak”.

a.2. Zer adierazi nahi du ama hitzak?

Izenburuan aipatu dut "azalpenak" emango nituela AMARi buruz. Zer adierazi nahi nuen? Mitxelenak dioenez (1964, or. 133), ba omen daude zenbait toponimo Euskerak esplikatuz ezin dituenak eta agian, Latina aurretik sortuak izanik, indoeuroparurretiko garaitan sorburua izan dezaketenak". Eta zenbait lerro azpirago dio:

“con lo que se abre la posibilidad de que otros nombres en –**ama**, sin explicación vasca como *Berama* en Navarra (cf. celtibérico ueramos, uoramos) *Beizama*, *Cegama*, contengan el mismo sufijo indoeuropeo –**ama**, **isama**”.

Hemen, bada, orain proposatu nahi dudana da -**ama** bukaeradun zenbait toponimok badutela indoeuroparurreko azalpena edo ulergarritasuna, bestelako analisiak ere egin daitezkeela ukatu gabe. Ez da alperrik izango Azkuek, jada, 1923an gai hauek jorratzen zebilelarik, **Aldama**, **Arama**, **Beizama**, **Elama** (Goizuetako auzoa), **Lezama**, **Ultzama**, **Zegama**, direlako toponimoen esanahiaz galdetzen zuela, erantzuna ematera ausartu ez bazen ere. **Beraz, AMA bukaeradun toponimoak interpretatzeko zailtasunak, hizkuntzalariek aspalditik ohartarazi dituzte.**



Beizama

Baino, bestalde, ezin dugu ahaztu beste zenbait toponimotan **ama**- delako lexema toponimoen aurrean ere azaltzen zaigula. Adibidez, hor ditugu amara, amaro, amasa, amasorrain, amalda. **Hauetaz, ordea, ez dut ezer esango.**

Interesgarria izan daiteke, baita, Mitxelenak "De Onomastica Aquitana" 223 or. delakoan egin zuen aitortzea: "nuestras ideas acerca de las creencias religiosas de los aquitanos no son demasiados claras y por ello no sabemos qué elementos significativos podemos encontrar en las denominaciones de sus divinidades".

Kontuan hartzen badugu Mitxelenak Akitaniera eta Euskera artean jarraipena ikusi zuela, zera ondorioztatu dezakegu: akitaniarren erlijioaren ezezagutza oztopo zaigula

gure onomastikan ama-dun toponimo mitologikoak ulertzeko.

Dena dela, eskeini nahi ditugun "azalpen" hauek fonetikaren sakontasunean eta hizkuntzen konparaketan sartu gabe eman nahi izan ditut; aldi berean, ondorio orokorrak uxatuz eta teorizatze lanetik aldenduz. Halaber, ez dut ukatu nahi espezialistek plazaratzen duten beste zenbait indoeuropar interpretazio, kontuan hartu beharreko ez direnik. Sarritan gertatzen dena da, indoeuroparazaleek, euren interpretazioek beste alternatibarik posible ez balute bezala, agertzen dituztela zenbait toponimo. Eta horren kontra noa, interpretazio indoeuropararrekoak ematea ere posible dela hain zuzen. Horrela, etorkizunean, interpretazio indoeuropar eta indoeuropararrekoak elkarren ondoan plazaratuz, denak eztabaidatu eta ustezko egokienak aukeratuak izan daitezten.

Mitxelenak dioenez (De Onomastica Aquitana, 2011, p. 216), "En los nombres aquitanos hay, como se sabe, una cantidad considerable de elementos indoeuropeos, que en esta ocasión podemos designar fundamentalmente como célticos... Bastará con citar algunos ejemplos claros. En (*Minervae*) *Belisamae* tenemos el suf. *-isamo-*, *-isama* de superlativo: galo *-isamo-* (Marti Rigisamo)..."

Testu honetan Mitxelenak dioenez,, "argi" omen da **-isama/-isamo** zeltiar superlatiboa dela. Eta hala izango da. Arrazoa izango duela, nik ez dut zalantzarik egiten. Baina *argia* da baita, nabarmen *argia* ere, Euskeraz "ama" *k mater* esan nahi duela. Beraz, homofonia baten aurrean gaude. Adibide polita, non, bi interpretazio homofonoen aurrean, printzipioz biak nabarmen "argiak", bat aukeratu beharrean aurkitzen garen, lehentasuna emanez.

Lehenik, zeltiar interpretazioa onartzen bada, orduan superlatiboa, seguraski, izenlagun batena izango dela suposatzen da. Mitxelenak aipatzen duen "**Minervae Belisamae**"-ren kasuan, superlatiboa Latineko "*bellus, a, um*", datiboan, izenlagunarena izan liteke. Baina, zeltiar adjetibo baten superlatiboa izan behar baldin badu eta ez latina, <bel>-aren superlatiboa hain zuzen, orduan zeltiar adjektibo-edo horrek zer esan nahiko luken adierazi beharko da. Mitxelenak, ordea, ez du "*liteken*" horren esanahia eskaintzen. Ezta hemen estudiatzen ditugun ama-dun horien oinarriak eta esanahia: **lez-ama, zeg-ama, seg-is-ama, ar-ama, ez-ama, be-iz-ama, el-ama, itur-ama, txar-ama**, etb. Guzti hauetan, non daude zeltiar *litezken* (**lez-**, **seg-**, **segis-**, **ar-**, **ez-**, **beiz-**, **el-**, **itur-**, **txar-**) horien esanahia edo analisisa, hain zuzen, superlatiboen oinarri liraketenak? Mitxelena jaunak, berak suposatzen duen **-ama** horretaz aparte, ez du zeltiar esanahia duenik ezertxo ere eskaintzen. Ezertxo ere ez. Ez dut uste hori arrazoibidezkoa denik.

Mitxelenak, gainera, ez du esaten aipaturiko ama-dun izen propio horiek hibridoak direnik. Hau da **ama** atzizkia indoeuroparra bai, baina erroak (lez, zegi, be-iz, ar, itur, etb.) indoeuropararrekoak liraketenik ez du esaten. Orduan, erro horiek ezin al dute euskal ulergarritasunik izan ?

Bigarrenik, indoeuropararreko interpretaziotik abiatuz gero, <ama>-dun oinarri guzti horien esanahiak garbi azaltzen dira. Hain zuzen, Euskal hiztegi guztietan azaltzen dira **leze, zegi, itur, txara, ele, ur**, direlakoan esanahiak. Horrez gain, aurreindoeuropar kulturatik abiatuta, hau da, euskal eta aurreindoeuropar mitologiatik abiatuta, toponimo horiek ulergarritasun osoaz argitzen dira, baldin eta adjektibotzat hartu ordez, sustantibotzat hartzen badira.

Alde izugarria dago, beraz. Zeltiar interpretaziotik abiatuta, ez da toponimoaren itzulpen osorik eskaintzen. Aldiz, indoeuropararreko interpretaziotik abiatuta, ordea, itzulpen ulergarriak eskaini ahal dugu.

a.3. Eztabaida: zeltiarra ala euskalduna?

Homofonia nabarmena gertatzen da baita euskerazko <"zegi"-*behia* >, eta zeltiar <"seg"-*victoria*>ren artean. Halaber, beste adibidea ipiniaz, homofonia gertatzen da, alde batetik, hitz hasieretan "al-" aurrizki duten arabiar toponimoek eta, bestaldetik, **Alfonso** germanikoa, **Albus** latinoak, **Albillos** Burgosko udalerria, **Alberdi**, **Alkorta**, **Alda**, **Altzo**, **Alustiza** etabar euskal abizenen artean. Eta **al-** aurrizkiari dagokionean, garrantzitsua da gogaraztea, Krahe hizkuntzalariak, Europa Zaharreko hidronimoak aipatzerakoan, zerrenda luzean eskaintzen ditu **al-** aurrizkia duten ibai, putzu eta laku izenak. Ez da ahaztu behar, beraz, **al** europarra ere badela, ez arabiarra bakarrik. Euskeraz, berriz, edozein hiztegitan aurki daiteke "**ala**" <**larre**>ren sinonimoa dela. Antzekoa gertatzen da -IS- morfemarekin: Latineko genitiboa izan daiteke, egia da; baino baita Euskerazko **ura** ere izan daiteke; edota, hirugarrenik, <**aitz**> aren aldakari gisan, baita **mendi** adierazi dezakela.

Eztabaidaren erdigunean aurkitzen duguna, beraz, ez da **ama** eta **seg(i)** zeltiarrak eta euskerazkoak izan ote daitezkeen. Baizik kasu bakoitzean eta zehatzean bietatik zer esanahia aukeratuko dugun: zeltiar interpretazioa ala euskalduna. Eta, jakina, behar bezala arrazoituz.



Irudia: domdom

a.4. Ama nepalieraz

Jakingarria, baita, Nepalieraz **-ama-** hitzak duen esanahia. Nepaliera hizkuntz indoeuroparra da, Sanskritoeraren adarra, indoiraniar taldekoa hain zuzen, non **-AMAK-** euskerazko **-amak-** duen esanahia berbera du. Ondobidean, Bhabendra Bhandari jaunak, nepaliarra berez eta Euskerako ikaslea Donostian, emandako informazioa plazaratuko dut.

Nepalerriko kulturean eta erlijioan, dirudienez, badira *gizonezko* jainkoak, baina, halakoei ez zaie, ezta otoitzetan ere, "**aita**" deitura itsasten. Alderantziz gertatzen da *emeak* diren jainkoetan. Hauei, otoitzetan, <**ma**> edo <**mata**> esaera erasten zaie, horrela *ama-jainkoa* deitu nahi zaiela adieraziz. Delako <**ma/mata**> deitura horrek *ama-jainkoa* esan nahi du eta otoitzetan bakarrik erabiltzen da. Gainera, Bhabendra jaunak azpimarratu zidanez, <**ma/mata**> bukaera hau ez omen da atzizkia, sustantiboa baizik, beste sustantiboari bukaeran erasten zaiona alegia.

Adibide bat ipiniaz, esan zidana hitzez hitz itzuliko dut, **Manokamana-ma(ta)**: *Diosa que cumple los deseos del devoto*, esan nahi omen du.

Ez omen dute abere emerren haragirik jaten, izan ere emeek birsorkuntzarako balio baitute. Abere arren aragia, ordea, jan egiten dute, zezenarena ez beste guztiak.

<Gau> hitzak behia esan nahi du. Baino **Gau** (*Behia*) sagaratua baita, otoitzetan, jainkoa bailitzan, < **ma/mata** > bukaera erasten zaio. Ondorioz, otoitzetako esaera osoa, **Gau-ma** edo **Gau-mata** izaten da.

Beste adibidea ipiniaz, **Kali-ma**: jainko eme babesleari egiten zaion deia omen da. Berez, **Kali** jainko emea da; baino, otoitzetan, < **ma/mata** > erantsiz, < **Kalima** > edo < **Kalimata** > deitzen zaio.

a.5. Ondorioak

Ondorioz, zera aurkitzen dugu: **-ama** edo **-ma** bukaerei buruz, bost interpretazio badirela. Lehenik, agian zeltiar superlatiboa izan litekeen atzizkia (**-ama**).

Bigarrenik, Europa Zaharreko hizkuntzan, Krahe hizkuntzalariak hidronimoetan zerrendatu zituen **-ma** atzizkidunak; dena dela, zehaztu beharra dago, Krahek ez zuela litekeen atzizki honen itzulpenik eskaini.

Hirugarrenik, Nepalieraz hidronimoetan azaltzen diren **-ama** bukaeradunak; kontuan hartuz delako **-ama** horrek *Jainko Ama* esan nahi duela, ez dela atzizkia, sustantiboa baizik eta Nepaliera hizkuntz indoeuroparra dela.

Laugarrenik, Tobarrek ohartarazten digun posibilitatea, alegia, indoeuropar eta indoeuroparaurreko hizkuntzetan azaltzen diren zenbait sustantibo, agian, aurre aurretik legokeen hitzontzi edo hitzaska amankomuna batetik hartuak liratekela.

Bosgarrenik, euskal **-ama**:- sustantiboa, mitologikoa eta hitz bukaeretan azaltzen dena, baino atzizkia izan gabe. **-AMA**- honen esanahia <*Jainko-Lur-Ama*> izango litzateke eta barne hartuko luke naturako hamaika fenomeno.

b) Euskal mitologia

Euskal mitologia, funtsean, ez da indoeuroparra, ezta semitikoa, indoeuroparaurrekoa baizik. Mitologia hau panteista da eta gure LUR planeta hau hartu du bere kosmologiako izaki guztien sorbururutzat. Ondorioz, LURRAK, planeta honetako izaki guztiak bere erraietatik ateratzen ditu: urak, iturriak eta ibaiak, mendiak, leizeak, ibarrak eta sakanak; izotzak, ekaitzak, tximistak, basoak eta abereak; ilargia eta eguzkia. Bizidun guztia LURRAK sortu baitu, horregatik LURRAMA deitu behar zaio. Gainera, LURRAMA honen sortze lanak ez du etenik, oraindik ez da amaitu, beti erditzen ari den AMA JAINKOA da. Horregatik, Paleolito garaiko Jainkosak sabel handiaz irudikatzen zituzten, erditzen ariko bailira.

LURRAMA etenik gabe AMAGINTZAN ari da. Atsedetik hartu gabe, ez semiten Zeruetako Aita Jainkoak zazpigarren egunean atsedetik hartu zuen bezala. Zeruetako Aita Jainko horrek sortu omen zituen naturako izaki guztiak. Judutarren Lurra, beraz, lur soila da; ez da LURRAMA, bertako urak, mendiak, izarrak eta tximistak sortzen dituen. Naturako izaki guzti hauek <*Zeruetako Jainkoak*> sortu omen zituen, ez *Lurrak*. Judutarren, greziarren eta erromatarren *Lurra* ez zen **Lurrama**, euskaldunena bai.

Bestalde, Latineko NATURA hitzak *jaiotza* esan nahi duela esan genezake. Beraz, nolabait esateko, Natura horren kumeek (mendiek, urek, etb.) ez dute Ama ezagunik. Jaiotza dira, bai, Naturakoak dira, Zeruetako jainko batek sortuak, baino ez dute Amarik. Euskaldunen mendiek, putzuek, iturriek, basoek, zegiekin (behiek), zaldiek eta ibarrek, ordea, badute Ama, LURRAMA

hain zuzen. Ez dira auskalo nongo jainko batek sortuak, LURRAMAren erraietatik sortuak baizik. Beraz, euskal mitologiaren erdi erdigunean LURRAMA aurkitzen dugu.

Kristautentzako Jaungoikoa zeruetako jainkoa bakarrik ez den bezala, aldiz gizon gorpuztun baten antzera irudikatzen duten pertsonaia ere den bezala, Jesukristo alegia, horrela Lurrama ere euskal mitologia zaharrarentzat. *Lurrama* ez zen mitologia hura sortu zutenentzat gure planeta Lurra bakarrik, baizik *gozpuztun* itxura batean irudikatu zuten *amanderea* ere. **Lurrama** Lurra zen bai, baino baita *Amandere gozpuztun* misteriotsua ere. Eta *Amandere gozpuztun* misteriotsu horren izena MARI zen. *Lurreko-Jainko-Ama*, ez zeruetakoa. Bizitzaren emailea. Berak bere erraietatik sortutako izaki guztien formetan eraldatzen, proiektatzen eta gauzatzen zena. Hau da: aldi berean Jainko-Ama-Andere-Lurra den Mari. Beraz, Mari ez da *Lur* orokorra bakarrik, baizik Lurreko forma zehatzetan eraldatutakoa ere. Metamorfosia eginez, mendien, iturrien, uren, lezeen eta abereen forma konkretuak hartzen dituen jainko panteista beraz.



IRUDIA: Marisa Lopez Moreno

Eta *Jainko-Lur-Ama* horren metamorfosiei buruz hara Ortiz-Osésesek (1996, 82 or) idatzirikoa:

“Mari como la Madre Tierra... integrada en su personalidad mítica tanto el carácter elemental o corpuscular de la *mater*-materia... Esta integración implica los tres reinos de la naturaleza y los cuatro elementos fundamentales... Mari integrada en su persona simbólica lo mineral (como estalagmita, piedra, hueco natural), lo vegetal (como hierba, árbol, flor) y lo animal (como vaca, sierpe, macho cabrío, caballo, toro, buitre y, finalmente, como hombre/hembra).

Hau da. Jainko-Lur-Ama hori (Mari izenekoa) **lurrama, urama, ultzama, iturrama, karama, arama, ezama, zegama, zalama, elama, amalda** edo **aldama, beama, beizama, txarama**, forma guzti horien metamorfosian eraldatuta azaltzen zaigu, hemen azertu ditudan toponimoetan.

Mitologia bitxia, noski; mitologia guztiak bitxiak izaten diren bezala. Adibidez, aldi berean Jainkoa eta gizonezkoa izatea, edota *Betiko-Jainkoak* amarik izatea edota hilda gero lehen izandako soin berberarekin berpiztea, ez al dira kontakizun nahiko bitxiak? Eta horrela jarrai gintezke zerrenda luzea baino luzeagoan. Dena dela, bitxikeri horiek ez direla nik asmatuak bainan antropologoek deskribapenak direla adierazteko, hor ekarri dut zenbait testu esanguratsu. Ortiz-Osés, Arsuaga, eta Gimbutasena esaterako. Azpimarratzekoa da, batetik, Gimbutasena europaraurreko mitologiari buruz egindako deskribapena eta, bestetik,

euskal antropologoek gure mitologiari buruz egindako deskribapenen artean dagoen antza handia.

Baino nere lanari dagokionean, azpimarratu nahi nukeena da, batetik, antropologoek euskal mitologiari buruz egindako deskribapena eta, bestetik, nere ikerketa honetako **ama** bukaeradun toponimoak, bat datozela eta elkar baieztatzeko balio dutela.

Edozeinetara, hizkuntzalarien eta zientzilarien mugak ulertzeko, ondo etorriko zaigu beste datu hau gogoan hartzea: analisi antropologiko hauek duela urte gutxi eginak direla eta, duela 30 edo 40 urte, hizkuntzalariek ez zituzten ezagutzen. Izan ere, bizi garen une historikoetan bizitzeak gizaki guztioi muga asko jartzen dizkigu. Ondorioz, duela berrogei urteko edo hizkuntzalariek, sarritan, ez zuten berebilik edo autorik izan, ezta autoak gidatzeko baimenik ere. Eta horrelakorik ez zutelako, bere analisi toponimikoak lekuz leku, geografian, baieztatzeko aukerarik ez zuten izan. Halaber, ez zuten izan, ezta, gaur internetek eskaintzen digun informazio ugari.

Eta ataltxo hau bukatzeko, galdera bat plazara genezake: Euskera Europa Zaharrean izan ziren hizkuntzen azken arrastoa edo kondarra bezala ikusten da. Era berean, euskal mitologia ere Europa Zaharreko mitologiaren azken arrastoa edo kondarra ote da? Halaxe dirudi. Izan ere, euskal mitologia XX. mendean bizirik zegoen oraindik. Horri esker, etnografoek, antropologoek eta etnologoek mitologia hori jaso eta analizatu ahal izan dute. Ondorioz, beste galdera bururatzen zait: AMA bukaeradun Euskal toponimoek Europa Zaharreko mitologia eta toponimia hobeto ezagutzeko bidea irikiko al digute? Baietz susmo dut nik.

c) Gaztelerazko <madre> toponimoetan

AMAREN gaia jorratzen hasi eta gero, badago saihestu ezineko beste datu bat ere: Gazteleraz ere badirela MADRE duten toponimoak eta hidronimoak. Adibidez, Alcarazen (Albacete). 2012ko udaberrian hara joan nintzen eta 25-30 urte tartekoak ziren bertako gazteek esan zidatenez, han aurrean dituzten mendiei (Sierra de Alcaraz izenekoa) <Montes de la Madre> deitzen omen diete. Eta oinazpitan gelditzen zaien ibarrari, berriz, <Vega de la Madre> deitzen omen diote. Eta bertako ibaiari, (ofizialki Río Guadalmena) <Río de la Madre> deitzen omen diote.

Baino hemendik hurbilago ere badira beste adibideak. Sorian badago beste RÍO-MADRE izenekoa. Errioxan eta Sorian, berriz, ARROYO MADRE aurki ditzakegu. Itero del Castillo (Burgosen) berriz badago FUENTE MADRE. Eta urrutirago joanda, Badajozera, ARROYO MADRE DEL AGUA aurkitu dezakegu.

Orduan, Gazteleraz gertatzen dena eta errekonozitua dagoena, zergatik da ezinezkoa Euskeraz ere gertatzea? Zergatik Euskeraz baldin bada ez dute sentidurik, baino Erderaz baldin bada, orduan ba? *Fuente madre* eta *río madre* badute sentidua, baino **iturrama** eta **uramak** ez? Zergatik? Zergatik gaztelerazkoei ez die inork esaten "*con leve disfraz castellano*", baino euskerazkoei bai, "*con leve disfraz vasco*", Mitxelenak gaineratu zien bezala? Nik alderantziz esango nuke. Gaztelaniazko *río madre* etb. hobeto ulertzen dira euskerazko **ama**-dun toponimo ugariak kontuan hartu eta euskal etnomitologiarekin erlazionatzen badira, LURRAMA JAINKOarekin alegia.

Madre izena duten horiez gain badira antza handia duten beste batzu: Virgen de los Llanos, Virgen de la Vega, Virgen de la Sierra etb., non Amabirgina gertaera geografikoei itsasten zaie.

Horrela, Virgen de la Cueva gaztelaniazkoa dela inork zalantzarik egiten ez badu, zergatik Lez-Ama ezin da euskalduna izan eta, derriorrez, indoeuroparra izan behar du ?

d) <ama>ri buruzko azalpenak

Nere asmoa oso zehatza da, hain zuzen, hemen aztertzen ditudan **ama** bukaeradun toponimo batzuri euskal esplikazio bat ematea. Zergatik? Beste batzuek esplikazio euskalduna dutenik ukatu egin dietelako. Konkretuki Mitxelenak (1964, 1989, 2010), Albertos Firmatek (1978), Gorrochateguik (1996), Villarrek (2005) uste dutenez, **-ama** atzizki zeltiar edo indoeuroparra omen da. Tovarrek dioenez, hidronimoetan azaltzen den **-ma** atzizkia, sarritan ahozko batekin agertzen da erroari lotua. Autore hauek ez dute aztertu bukaeretako **-ama** delako hau euskal mitologikoa bezala interpretatu daiteken ala ez. Beraz, ustez, halako ausardia izan duen lehengoetakoa naiz ni. Baino, esan beharra dago, Nepalieraz ere, **-ama** delako hau ez dela atzizkia sustantiboa baizik eta, Euskeraz duen esanahi berbera duela, latinezko *mater* alegia.

Edozeinetara ere, nik kasu zehatz batzuk baino ez baititut aztertzen, lan honetako ondorioak ez ditut orokortu nahi; bestela esanda, nere interpretazioak **-ama** agertzen duten toponimo guztientzako balio duenik ez dut esaten. Ez dut ukatzen batzuk arabiarrek izango ez direnik, ezta beste batzuk indoeuroparrak izan ezin daitezkenik. Beraz, homofonia kasu baten aurrean aurkitu gaitezke, non hitz bat berbera, **-ama**, hizkuntza ezberdinetan izan daiteke.

-AMArri buruz, Mitxelenarentzat, badirudi korapilo nagusia zera zela: euskal ulergarritasunik ba ote duen ala ez. Mitxelenak ezetz esan zuen. Nik, berriz, baietz diot; baino ulergarritasuna ez datorkio Linguistikatik, mitologiatik baizik. Eta Mitxelenak ez zuen, **-amaren** interpretaziorako batere kontuan hartu etnomitologia. Funtsezko arazoa, beraz, ez da linguistikoa, *arrazoibide* edo *zentzuzkoa* baizik. Eta euskal **amaren** korapiloa askatzeko, arazoibidea edo ulergarritasuna ematen diona **etnomitologia** da. Hizkuntzalaritza zientzia bakartzat hartzea, ordea, ez da nahikoa. **Amadun** toponimoak ulertzeko, beharrezkoa dugu Antropologiaren laguntza ere: zientzia ezberdinen lankidetzaz hain zuzen, motz esanda.



Lezama

Hiru adibide jarriko ditut. LEZAMA, LETAISAMA eta BEIZAMA. Lezamaren kasuan, Mitxelenak (1989) 122or., *leze* euskalduntzat jotzen du; **-ama** berriz, denok dakigu zer esan nahi duen; halere, **<lezama>**k euskal esplikaziorik ez duela esango du. Liburu berean, *lete* eta *ais* euskalduntzat jotzen ditu. Halaere, **letaisama** indoeuroparra omen da. Ondorio berbera ateratzen du **<be-iz-ama>**ri buruz. "Apellidos vascos"(140 orrialdean), Mitxelenak euskal "*be(h)e* suelo, parte inferior" bezela itzultzen du. 108 orrialdean, berriz, *i(t)z* aztertzen du eta 41-42 orrialdetan *(h)aitz* -en aldakari izatea posible ikusten du. Halaere, **Be-iz-ama** indoeuroparra dela esango digu.

Mitxelenak (Apellidos, 44 or.) orrialde erdia baino gehiago ematen du **-ama** aztertzen. Bertan, 11 **-ama** bukaeradun izen aipatzen ditu. Horietan ez du sekula litekeen alde mitologikoa batere

aipatzen. Hareago, *Ulzama, Uzama, Ut(z)çama, Uxama*”ri buruz "*leve disfraz vasco*" dutela esango du.

-**ama** atzizki zeltiar ote den gaiari buruz, Villar (2005, 280 eta hurrengo or.) da hori diona, hiru ohar egingo nituzke nik: lehenik, ea zeltiar hizkuntzan superlatiboa adierazteko -**amo** edo -**ama** atzizkiak erabiltzen diren ala ez. Hori, ordea, ez da lan honetako gaia. Nik ez baitakit zeltieraz, ezin dut ez baiezkorik ez ezezkorik esan, baino, itxuraz, hala omen da eta nik onartzen dut. Bigarren gaia, ea -**ama** zeltiar atzizkia, Europako zenbait toponimotan, adjetibo batzuri erantsita ote dagoen. Hau ere ez da nere lan honetako gaia. Hirugarrenik, eta hauxe da nik hemen mahairatzen dudan gai bakarra: ea konposizioan azaltzen diren -**ama** bukaeradun zenbait indoeuroparaurreko sustantibo, euskal mitologiarekin lotuta dauden. Zehatzago esanda, ea delako -ama horiek LURRAMA-JAINKO-ANDEREAren adierazleak diren ala ez.

Beste gaia da ea, euskal -**ama** honez gain, beste -**ama** arabiarra edo zeltiarra ba ote dauden ala ez. Azkeneko gai hau, ez da nere lan honen aztergaia.

Gogoan hartzeko beste gauza da, baita, Hego Ameriketara ere badagoela Pacha-Mama delakoa edo Lurr-Ama.

Gure azter lan hau, gaurko egunetarako, guztiz bitxia azaltzen zaigu. Batetik, izen propio hauek naturako gertaerak deskribatzen dituzte eta, bestetik, konposizioan **ama** (berez giza fenomeno dena) erasten zaie. Eta bitxia delako, hain zuzen, horregatik da beharrezko euskal etnomitologian sakontzea. Mitologia honen arabera, naturako gertaerak **Lurramaren** erditze lanak bezelakoak dira. Horregatik Paleolito eta Neolito garaiko *Jainko Amaren* irudiak sabel handi batez agertzen zituzten.

Atal hau bukatzeko, zera esan nahi nuke. Hemen estudiatzen dugun toponimoetako AMA hau izen konplexua dela eta gaurko pentsamoldea dugunontzat ez da xamurra itzulpen bakarrarekin adieraztea. Batzutan "*natura*" hitzaren bidez itzul genezake; bestetan, *Lurrama* hitzaren bidez; bestetan *Ama Kosmikoa* bezala; besteetan *Jainko Ama* bezala eta besteetan *Mari* bezala.

e) ARSE: Un resumen de mitología vasca

ARSEko artikuluan, zenbait orrialdetan (hamabost edo), euskal mitologiaren laburbilduma bat eskaini dut. Horietan justifikatuta gelditzen da, antropologoaren arabera, euskal mitologiaren erdigunean eta muinean **Lurrama** kokatzen dela. Nere ustez, antropologoek zer dioten jakitea, beharrezkoa da. Orain hemen, Ortiz-Osésen (1996, 71-81 or.) testu labur batzuk aipatuko ditut:

"Tanto en el caso de Mari, como en el de otras divinidades telúricas preindoeuropeas, deberíamos hablar de reencarnaciones, **ya que primero la Diosa encarna a la Tierra y, posteriormente, se reencarna en diferentes realidades a modo de hierofanías o epifanías sagradas**. Tal es el caso relevante de la diosa cretense en la religión minoica, la cual aparece y reaparece como **diosa de las serpientes, la señora de los animales, la madre de las montañas, la diosa del árbol, la diosa del mar, etc.**"

p.72-73. "En el caso de Mari cabe profundizar la cuestión: aquí la Tierra (Lur) femenina se metamorfosea en todo y ese todo es precisamente Mari que, a su vez, se transfigura en todo lo terrestre.

“Su pie animalesco no es un mero accidente: lo animal copertenece a su esencia, ya que en muchos lugares se la ve en figura de toro, carnero, serpiente, caballo, cuervo o buitre.

Subyace a todo ello, como ya hemos dicho, la sacralidad de la tierra como el elemento primario por cuanto femenino y, por tanto, transmutable y transmutador de todos los demás, de acuerdo con una mentalidad agraria basada en la transformación de las semillas de lo real a través de la tierra matricial”.

p.79. “...donde reaparece de nuevo la junción de la tierra y el agua. Sobre esta junción de la tierra (negro) y agua (blanco)...”

p.81. “Mari es la diosa total (Pantea): en su figura convergen, como dice Barandiaran, funciones que en otras mitologías aparecen dispersas o repartidas en diferentes genios o númenes. Esta diosa <omnipariante>, en el doble sentido de que lo pare o engendra todo y de que todo lo enlaza e implica. La Biblia vasca debería comenzar con este prólogo:

In principio erat Lur

et Lur erat Mari

Et Mari erat omnia.

f) Lurrama – Panteismoa eta jainko amaren birgorpuzteak...

Lurrama-k, Euskeraz, bi esanahi ditu: bata, Retana eta P. Mujikaren hiztegiek ematen dutena "*tierra arable*" alegia. Seguraski, *Amazabal* izena duen Leitzako auzoak horixe esan nahiko du. Susmo dut delako **amazabal** honek *lurrama-zabal* izan lezakela izen osoa eta, *Lur* oinarria kenduta gero, laburturik, **amazabal** hutsean gelditu dela. Beraz, izena osaturik, *lurrama-zabal* izan liteke. Edozer dela, Leitzako **amazabal** izeneko auzoa lur puska ordeka da, mendien tartean eta mendien azpian. Inguruko mendi hauek ez dira, inola ere, golde lanetan aritzeko lurrak, goldegaitzak dira. Beraz, kontrastea nabarmena da. Azpimarratzekoa deritzot, goldegai diren lurrei, Euskeraz, *lurrama* deitzea. Zergatik? Halako lurrak bereziki emankorrek direlako ote? Euskerak ez ote digu *ama* eta *eman* kontzeptuen artean lotura berezia ezarri?

Lurrama-ren bigarren sentidua da **Ama Kosmikoa** edo Lur planetako Ama adierazten duena. Sentidu honetan agertzen zaiqu hemen jorratzen ditudan toponimoetan .

2- KAR, GAR, HAR, AR, HARRI, ARRI.

3-KARAMA.

4-ITURRAMA Y FUENTE MADRE.

5-ARROYOMADRE, RIOMADRE, ARROYO MADRE DEL AGUA.

6- URAMA.

7- UAMA.

8- ULZAMA (VALLE DE)

9-MARIARATZ ERREKA.

10- ARAMA.

11- ARACAMA.

12-EZAMA e IXAMA.

13- VIRGENES DE MONTES, LLANOS, VEGA, ETC.

- 14- A PROPÓSITO DE Alcarrache, Alkaraz, Alkarrás, Alkarama.
- 15- JARAMA.
- 16- GUADARRAMA.
- 17-BEIZAMA.
- 18- TXARAMA, ZARAMAGA, XARRAMA.
- 19-LEZAMA.
- 20- LETE
- 21- LETUR.
- 22- LETAISAMA
- 23- LETONDO.
- 24- LEGIZAMA.
- 25- SOBRE LA BASE "SEGI" Y/O "SEG".
- 26- ZALAMA.
- 27-ELAMA.
- 28 - ZEGAMA.
- 29- EL VIEJO DEBATE SOBRE EL SUFIJO **-a**.
- 30- SEG(K)IA.
- 31- SOBRE EL RÍO ARBA.
- 32-TOPONIMOS PREINDOEUROPEOS EN LA ANTIGUA VASCONIA ORIENTAL.
- 33- SEK(G)AISA
- 34- SEGISA.
- 35- SEGISAMA.
- 36- SEGORBE / SEGORBI.
- 37- SEGOVIA.
- 38- SIKORIS fluvius, (río Segre).
- 39- BELAISCA .
- 40- MUNDO-BRIGA.
- 41- CARPETANOS.
- 42- BEAMA, AMALDA, ALDAMA